

TOKIKOM

2013ko ekaina | 127. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

25 urte
lezamarrak
hezten

ADRIÁN LÓPEZ LOIUKO ETA ALDEKONEKO JAI AKRAV MAGÁI KASTAROA



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

TXIMINTX
DERIOKO EUSKARA ALKARTEA

Jaietan be **EUSKARA AHOAN!**

Gozatu jaiak euskaraz!

Derio

aldeko one
horts klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan

-Especialitatea:
umeak

Horts-protesiak
1x450 €
2x800 €

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik esko
etortzeagaitik

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, erorkerria
Auzokoen kumutazioak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinia emateko garbikerak
Ikastetxeak
Zabaler hilerak

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefona: 94 454 07 98
Fax: 94 454 14 18

Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO

t i k
t a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

astikenemotor
WWW.ASTIKENEMOTOR.COM

DERIO - 946 451 781

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Ordulagi jarraitua
Laser depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti@euskalnet.net

ISCITTO

www.iscitto.com
iscitto@euskalnet.net

USTIAPENA,
SALMENTAK, SAT

TAHONA URIBE
Okintza eta opilgintzako lantegi propioa

Atrabidea, 2
ASTRABUDUA
94 417 10 00

Uribe, 8
DERIO
94 454 53 39

Obieta, 9
ERANDIO
94 404 83 60

MAKINA AUTOMATIKOAK:
KAFAA, LATAK,
SNACK, TABAKOA

Idorsolo ind., 5. nabea 10. pab. 48160 DERIO
Tel. 94 454 33 34
656 78 66 84 / 85 - Fax: 94 454 29 04



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarte Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoe-txea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Sara Gandara, Erika Pereda, Arantza Sanz, Gaizka Peñafiel, Peru Iparragirre, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobietta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portadaren argazkia: Gaizka Peñafiel

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



12 Adrián López, pilotaria



20 Loiu eta Aldekoneko jaiak



26 Krav Magá ikastaroa

- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Aro berriak**
- 12 Gaztea eta... Adrián López, pilotaria**
- 14 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 16 Lezamako eskolak, 25 urte**
- 20 Loiuko jaiak**
- 23 Aldekoneko jaiak**
- 24 Literatura**
- 26 Krav Magá ikastaroa**
- 28 Berbalagun txokoa**
- 30 Teknologia... .eus domeinua**
- 31 Aikorrizketan... Globalizazioa**
- 32 Sukaldaritza**
- 33 Denborapasa eta zorionak!**
- 34 Agenda**

Peluteria
Esterika
94 455 81 44
Argülen 2. behealdea Larrabetzu-Bizkaia

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behealdea 48195 Larrabetzu 94 455 89 19

Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20



SARA GANDARA
(Kazetaria)

Hitz egin dezagun eguraldiaz. Egia esan, urte honetako lehen sei hilabeteak ez dira nahi beste onak izan, baina, udaberriak bereziki, lur jota utzi gaitu. Agur esan berri diogu urtaro horri, baina, izan dugun giroa ikusita, norbaitek otsailaren bukaeran geundela esan baligu, nik neuk sinetsiko nukeen.

Maiatza ez ezik, 2013ko lehen bost hilabeteak kaskarrak izan dira. Eta datu oso esanguratsuak utzi dizkigute. Euri asko bota du eta temperatura ere ohi

baino baxuagoa izan da. Zer gertatzen ari da? Nahiko nuke nik galdera horri erantzuna eman, baina... gauza, faktore asko hartu behar dira kontuan petralaldi hori ulertzeko. Eta, egoera hau izanik, geure urtegiak urez gainezka daude. Ezin esan urtegiak makal dabilzanik!

Maiatzarekin hasiko naiz. Egia da Azo-reetako Antizikloiak eragin zuzena izan duela kaskarraldi honetan, izan ere, bere ohiko lekuan ez, Ozeano Atlantikoaren ipar partera mugitu da, eta, horrek, eze-gonkortasuna ekarri digu. Ba al dakizue zenbat eguzki-egun izan ditugu maiatzean? Esku bateko atzamarrekin nahikoa genuke enigma hori ebazteko.

Maiatzeko tenperaturak ere zeresan handia eman du. Egun gutxitan izan dugu 15°C-tik gora. Zehatzago ere esan daiteke: 19 egunetan izan ditugu 15°C edo hortik beherako tenperaturak; sei egunetan, 15 eta 20 gradu arteko tenperaturak; eta lau egun bakarrik 20°C edo

hortik gorakoak, beti ere Bilbo adibidetzat hartuta. Niri, behintzat, gutxi falta izan zait depresioan sartzeko. Hori gutxi ez, eta normalean baino askoz beherago kokatu dira aurtengo beroenak, maiatzeko maximo historikoak kontuan hartuta. Izan ere, Bilbon esate baterako, maiatzeko maximo historikoa 36°C-koa izan ohi da; baina aurtten, 24 gradukoa izan da.

Euriari dagokionez, maiatzean, Donostian eta Baionan, ohikoa baino ia bi aldiz gehiago bota du. Bilbon, Iruñean eta Gasteizen, aldiz, ohi baino zertxobait gehiago bota du. Eta urtegiak berriro aipatuta, denak daude ehuneko 80 eta 90ean beteta. Baina 2013ko lehen bost hilabeteak kontuan hartzen baditugu, Donostian esaterako, ohi baino ia bi aldiz gehiago bota du, 1137 l/m²-ko; eta ia hiru aldiz gehiago Iruñean.

Baina idatzitako guztia iragana da, ea nola datorren etorkizun hurbila, eta, batez ere, estreinatu berri dugun uda.

Udaberri eroa

Atipikoa?

Kazetari atipikoa naiz. Orain dela hiru aste oso erabaki garrantzitsua hartu nuen, bat-batean, erabaki 'irabazleak' hartzen diren moduan: Internet duen telefono mugikor moderno bat erosi nuen, punta-puntakoa, azkenengo berritasunak jakiten lehenengoa izateko.

Lehenengo egunean aplikazio batzuk jaitsi nituen; bigarrenetan Twitter, WhatsApp, e-maila eta ez dakit zenbat gauza gehiago erabiltzea lortu nuen; eta hirugarrenean hori dena nire bizitzatik ezabatu nahi nuen! Telefonoa hartzen nuen bakoitzean milaka mezu aurkitzen nituen (azken berriak, lagu-



ERIKA PEREDA
(Kazetaria)

nen bideoak, lankideen abisuak...), orduak eta orduak eman nituen informazioa ordenatzen eta ulertzen, eta nire ustez txarrena dena, momentu guztietan lokalizatua egotearen sentsazioa.

Gaur egun kazetari zara eta ez daukazu Internet sakelako telefonoan? Zelan arraio egiten duzu, ba? Galdera hauek hamaika aldiz entzun izan ditut eta, zoritzarrez, batzuetan berriro entzutea gustatuko litzaidake. Egia da 'konektatua' nagoela, baina momentuz informatua egoteko ohiko bideak nahiago ditut: irratia, egunkaria... Bai, kazetari atipikoa naiz.

URAS
Estetika eta masajea
Aita Patxi Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

LEJARRENE JATETXEA
Garaioitza auzoa, 102 • LEZAMA • Tf: 94 455 65 46

KIMO
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIJA)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Askotan, betidanik, joaten naz hain gustuko dodan Gaztelumendi aldera. Seme-alabakaz batzuetan, txakurrakaz gehienetan... Leku nasaia, isila da. Gorbeia, Anboto... Gaztelu Larrabetzuko auzoko baserri handi, polit eta zaharren izugarritzko bistak oparitzen dituan horreitariko bat.

Neure buruari beti egin deusat galdera hau: hainbeste urte pasa ondoren, zergaitik irauten dau zutunik tontorrean dagoan monumentuak, gerra denporako bunkerren artean, bertakoei etsaien lorpenak gogorazoz? Beti pentsau dot gure lurrian sobran dagoala. Nahiz eta han dagoan idatzia jada irakuriezina izan, zutunik dagoan bitartean, nolabait gure adostasuna edo konformismoaren testigua da.

Larogeta hamargarren hamarkadan, Kartzarot taldean nengoala, abesti bat idazti neban horren gainean:

*"Beldurrekin lortu zendun gure
txarrerako asmo guztiak /
Baskoak hil, gerra zibil, euskera
apurtu, pantanoak ein /
Gernika agur, buruak makur, zabela
betetzeko ibili zur /
Baina burdinezko gerrikoan aurkitu
zendun gure arima... /
eta abesti hau" /*

Eztabaidea



Gaur, askotan bezala, hara joan naz paseoan eta ikusi dot beste batek be neure pentsamentua euki dauala. Eta pentsetatik ekintzara pasau dala. Astiro-astiro, harriz harri, monumentua botatzeko gurean dabilenako. Eta zerbait arraroa gertatu jat. Alde batetik, ziur nago sobran dagoana; baina bestetik, gogora etorri jataz seme-alabakaz bertara joandako aldiak eta hareen galderak. Azaldu ahal izan deutset zergaitik dagoan hor, nork agindu eban ipinteko, horren ondorioa Euskal Herriko gaur egungo egoera politikoaren azalpenaren zati garrantzitsu bat dala, zer gertatu zan orduan euskere-agaz eta euskaldunokaz, zergaitik, beraz, euskeraz mintzatzen ahalegindu behar dogun... Eta *Zer gara gu, nor gara gu* abesten handik abiau gara hirurok inoz, Lezamarantz, Basabaletik batzuetan; Etxerretik beste batzuetan. Txakurrak gure inguruan saltoka dabilzala, eurek be jaian parte hartuz.

Beraz, zutunik dagoan bitartean, bali-teke, eta bakarrik baliteke, beste baten-tzat be baliagarria izatea atzetik datoza-nei gure historia, izaera eta egoerea azal-du ahal izateko. Hain indarkeria eta zapal-kuntza handiaren testigua da... ez dakit, ba...

Asier Vicario

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikastaroak
Aisialdirako landak - Apolo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88

Aretxalde auzoa, 30 • 48196 LEZAMA



GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emisario

- Mero berriak asteburuetan
- Etxe eramateko platerak
- Baskia asteburuetan
- Eguraldi menua eta karta
- Jauziak eta edozeinak
- Jantoki zabalak

B.º Garsiain, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



ANKAPALU

LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



Irati Bediagak irabazi du "Mikel Zarate" saria

Galdakaoko Irati Bediagaren *Bel-darren hegaldia* ipuinak irabazi du aurten "Mikel Zarate" haur literatura-ko saria. Idazleak haurtzaroan izaten diren beldurak eta konplexuak umorez eta trebeziak landu ditu ipuinean, eta horretarako, Nahia aukeratu du protagonista. Nahia 10 urteko neskatila bat da, inguruak bultzatuta balleta ikasteko izena ematen duena, baina dantza klasi-koan oso eroso sentitzen ez dena. Umeengan eragina duten beste alderdi batzuk ere batu dira liburuan, hala nola lagunartea, familia eta barne mundua. Irati Bediaga 1990. urtean jaio zen Galdakaon eta hau bere lehenengo liburua da. Gazteak Irakasle-ikasketak egin zituen eta gaur egun masterra egiten dabil. Bediagak 3.000 euro jaso ditu sari-tzat, eta liburua udazkenean eman-
tu dira lehiaketara.

Goitioltzako jaiak

Uztailaren 12tik 14 bitartean jaietan ibiliko dira Goitioltza Lezamako auzoan. Bertako jai-batzordeak egitarau oparoa antolatu du egun horietarako, eta lagun-tzaile hauek izan ditu: Zorritzetan euskara taldea, Kurutze dantza taldea, Zorribike eta Udala.

Uztailak 12, barikua

–18:30: Jaien hasiera eta txupinazoa.
–18:30-21:30: Umeentzako jolasak: puzgarriak eta apar jaiak.
–21:30: Dj Xaibor.

Uztailak 13, zapatua

–Goizean zehar, "Goitioltza en duro" Txapelketaren entrenamenduak.
–10:00: "Goitioltza ezagutu", Zorritzetan euskara elkartearen eskutik.
–13:00: Paella Txapelketan izena ematea.

–14:00: Paellak aurkeztea eta sariak banatzea.

–15:00-18:30: "Goitioltza en duro" Txapelketa.

–19:00-21:00: Oxabi taldea.

–21:00-22:30: Berbena, Trikidantz taldearen eskutik.

–22:30-00:00: Sorpresa erraldoia.

–00:00-03:00: Berbena, Trikidantz taldearekin.

Uztailak 14, domeka

–13:00: Bertso-txakolinaren dastatzea, Etxahun Lekue eta Arkaitz Estiballesen eskutik.

–17:00: Kurutze dantza taldearen emanaldia.

–18:00: Ipuin kontalaria.

–19:30: Saiheski jana.

–20:00: Jaien bukaera.



Oxabi taldea

URÉJOLA
JATETXEA

Aretxalde, 5
48196 LEZAMA
Tel: 94 455 64 83
Faxa: 94 455 50 94
www.urrejola.es
info@urrejola.es

Ezkontzak
Enpresa-bazkariak
Menu bereziak

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Baskiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Baski-ko Txakolina

Goiztzez auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PREMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAYA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

Tximintx elkartearen 10. urtebetetzea



a: DerioKOMunikazioa eta Tximintx

Tximintx Derioko Euskara elkarteak 10 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko egun osoko jaia antolatu zuen ekainaren 14an, "10 urte eta 11 bizipen" izenburupean. Elkartekoak poz-pez agertu dira, bertan hainbat lagunek parte hartu zutelako. "Jendea gora eta behera ibili da egun osoan zehar, eta oso giro polita izan dugu. Eta batez ere azpimarregarria da gazteak izugarri inplikatu direla

jardunaldian. Gazteek indarra ekartzen diote edozein egitasmori; eta geureari dagokionez, hau da, euskarari dagokionez, gazteak badira hizkuntzaren etorkizuna".

Tximintxek 12 orduko egitaraua presatatu zuen Kultur Birikan. Goizean, Derioko herri ikastetxeko eta Txorierrri institutuko ikasleek bertan hartu zituzten eskolak; gainera, Txorierrriko udal euskaltegiko ikasle eta irakasleek Euskafea antolatu zuten; eguerdian, Derioko berbalagunak

elkartu ziren bazkaltzeko; ostean, Kukuke antzerki eskolakoez antzezlanak aurkeztu zuten; geroago, Derioko nagusiei egindako grabazio zati batzuk ipini ziren; jarraian, Txorierrri ezagutu gazte-lehiaketaren finala egin zen; beranduago, "Derioztarrak 5 Kontinenteetan" hitzaldia eskaini zen; horren ostean, Lainomendi taldeko neska-mutilek dantza agerraldia egin zuten; eta jaia borobiltzeko, gaueko 9:30ean, Tximintxen 10. urteurreneko ekitaldia egin zen.

48105 LEZAMA Bizkaita Carretera 1000m, 36



S.A.T. LEGU
SERVICIOS JURÍDICOS Y DE REGISTRO

Fu. 94 455 64 17 Tel. 94 455 61 98

Cooperativa Txorierrri

Rocío Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Mixtine 6, beheko - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmialdiak: 670 985 885

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)


LIBRERÍA SONDIKA
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Auzo-bide baten suntsiketa salatu dute Lezaman

Lezama Bizirik elkartetik jakinaz, razi duten moduan, salaketa bana ipini dute Lezamako Udalean eta Bizkaiko Foru Aldundian. Idazkietan, Ganguren mendiaren hegalean dauden auzo-bide publiko bat eta erreka batzuk suntsitu egin direla salatu dute. "Auzo-bidea eta erreka Udalarenak diren lurretan daude eta guñeak babes berezia du, Onura Publikoko Mendia delako".

Elkartek adierazitakoaren arabera, apirilean lanak hasi ziren bertako zuhaitzak bota eta handik eramateko. Makinak apirilean eta maiatzean ibili ziren lanean, euria ari zuen egunetan ere bai, eta ondorioz, "bidea eta ingurua suntsitu egin dira. Ebaketa sakonak daude eta erreka batzuen ubidea moztu egin da". Bidea Lezamatik kilometro bira dago eta Kurutze auzoa eta Viveroko errepidean dagoen baso-etxea lotzen ditu. "Oso egoera onean zegoen eta ibiltariak, mendizaleak, txirindulak... asko erabiltzen zuten".

Txorierritar bi, emangiltza.com webgunearen irabazleak

Emangiltza.com Bizkaiko zenbait Udalek eta Mankomunitatek sortutako webgunea da eta, besteak beste, seme-alabei euskara transmititzeko, gurasoek izan ditzaketen kezak, zalantzak eta beldurrak uxatzea du helburu.

Webgunean bertan inkestatxo bat dago eta hori bete duten gurasoek zozketa batean hartu dute parte. Orotara lau

sari eman dira eta lehenengo biak Txorierrira etorri dira. Hala, Derioko Gema Molanok lehenengo saria jaso du: nekazalturismo edo landa-etxe batean lau lagunentzako egonaldia. Eta bigarren saria, Loiuo Nerea Romerok: 100 euroko balioa duen euskarazko jolasen sorta. Sariak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean banatu ziren maiatzean.



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ESTILISTA
EVA ARDINES
AmAr
Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara
Uribi Plaza, 1 - Bidea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19; (Aurreko txanda)

ama
taberna
Leizola plaza, 7 - Leizaola (Zamudio)
94 455 71 69

Binilo apaingarria
Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz
Biniloaren tamaina: 43 x 58 cm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik
Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK
19,90€
BEZ BARNE

cianoplan
global printers
applications + business
Bizkaiko ZTP, 105
ZAMUDIO



Txakolinaren Eguna

a: Gaizka Peñafiel

Zeru beltza egon arren, eguraldiak atsedena eman zuen eta ehunaka lagun animatu ziren Lezamako Txakolin Eguna hurbiltzera. Orotara 37 salmenta-postu ipini ziren azokan. Horietako zazpian Lezamako eta Larrabetzuko txakolina jarri zen salgai; eta gainontzekoetan, ohiko nekazaritza-produktuak: ortuariak, euskal pastela, eztia, taloa... Era berean, Lezama saretzen elkarrekin 1.200 okela pintxo prestatu zituen. Txakolina Egunaren aurretengo edizioan omenaldia egin zieten

Bitxia txakolinaren ekoizleei. Txakolin hori Telleri upeltegian egiten da eta aurreten saritua izan da Catavinum World Wine and Spirits Competition lehiaketan.

Aurreko urteetan bezala, Alaitz Etxeandia Lezamako alkateak eta txakolingileek brindisa egin zuten eguerdi aldera. Hura oso brindis berezia izan zen, erritmo handikoa, txakolingileek abesti bat kantatu zutelako. Abestiaren hitzak bertolari batek idatzi zituen bertoko txakolinaren omenez, eta doinua *Egun da Santamiña* abestiarena zen.

Mendi irteerak

Gailur Lezamako mendi taldeak irteera antolatu du datorren hilabeterako. Uztailaren 19tik 21era bitartean Huescara joango dira, Ordesako Parke Nazionalera hain zuzen ere. Han egingo dituzten irteerak parte-hartzaile kopuruaren eta eguraldiaren arabera zehaztuko dira, hala ere, Faja de las Flores izeneko ibilbidea egiten saiatuko direla adierazi dute. Informazio gehiagorako: gailurmt@euskaltel.net. Bestalde, Arroeta Zamudioko mendi taldekoek Europako Mendietara joango dira uztailaren 13tik 14ra. Informazio gehiago eskuratzeko: arroetamt@euskaltel.net.

Atera tekla

Altzora Sondikako euskara elkarrekin egitasmo berri bat jarri du martxan herrian: Atera tekla. Pegatina batzuetan piano baten teklak inprimatu dute, eta tekla bakoitzean euskarazko esaldi bat ipini dute. Herriarrek gehien gustatzen zaien esaldia hartzeko aukera dute eta hura nahi duten lekuan itsatsi. Esaldiak gaika daude sailkatuta: maitasuna, abestiak, hitz ederrak eta aipu filosofikoak, esate baterako. Pegatinak herriko hainbat txokoratan ipini dira. Egitasmoak euskarakalean presentzia handiagoa izatea du helburu, eta herritarrei euskarazko oparitxo ematea.

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

IRATXO
gazategia

tertiario personalizatua
trufak
tortasak
pastelak
pastak

Mikel Zurutu, 2 - 3. lorja - Sondika, 48150 - 94 453 89 39

HARTEGIA - URDAITEGIA

VICTOR
ARTISANAL ELABORAZIOA

Oxela ekoizten dugu:
odolosteak, txoritxoak,
txistorra, solomoak
Plater aurrekoizatu

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia

94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Sabin Askolizaga
Aseguru agentia
Allianz

609 473 746

Mitxel, 6. beheko
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27

Troquenor enpresako langileek borrokan jarraituko dute

Troquenor enpresako langileak ekainaren 18an atera zituzten lantegitik, bertan enpresaren desjabetzea ekiditeko hilabete bi eman ostean. Langileak oso etsituta agertu ziren. "Azkenean lortu egin dute, bota egin gaituzte. Egunak eta egunak eman ditugu Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatzen, eta isiltasuna baino ez dugu jaso. Are gehiago, Ertzaintza bidali digute gure lanpostuetatik ateratzeko", esan du Roberto Gómez langileak. "Egoera erabat surrealista da, ulergaitza: gu kalean gaude, baina ez digute lan-kontratua deuseztatu, eta ez dugu indemnitaziorik. Gu kalean gaude, baina jabeak ez dituzte ordaintzera behartzen". Enpresaren 120 langileek argi dute "borrokan jarraituko dutela".

Langileek uste dute bere sektorean lana egon badagoela, eta eurek lanabesak dituztela lan egiten jarraitzeko, tresneria eta enpresa, alegia. Hala ere, desjabetzea gertatu ondoren, ez dute ez pabiliorik, ez lurrik behar egiteko. Eta horren haritik, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batu dira beren inplikazioa eskatzeko, baina ekaineko alea itxi orduko ez dugu langileen balorazioa eza-gutzeko aukerarik izan. Enpresa-batzordetik jakinarazi dutenaren arabera, enpresak 250.000 euroko zorra du Bretón familiarekin, pabilioiko jabea denarekin, azpiegituraren alokairuagatik, eta epaileak horregatik eman zuen desjabetzeko agindua. Era berean, Bretón familiak zazpi milioi euro zor dio Eusko Jaurlaritzari; 3,6 milioi, Foru Aldundiari; eta zazpi milioi, Gizarte-Segurantzari.

Enpresaren desjabetzea zalaparta handia ekarri zuen. Lehenengo saiakera maiatzaren 8an egin zen eta langileek

hura ekiditea lortu zuten. Baina azken saiakera honetan, aldiz, ezin izan dira lantegian geratu. Goizeko 8:30ean langileak, lagunak eta senideak batu ziren sarrera nagusiaren aurrean. Bildutakoek lelo hau zuen pankarta zabaldu zuten: "Gure lanpostuen defentsan. Ez itxi". Ordubete beranduago, epaitegiko langileak eta Ertzaintzako 10 furgoneta heldu ziren, eta desjabetzeari ekingo ziotela ohartarazi zieten langileei. Eurek erantzun zieten ez zutela bertatik alde egingo, eta euren lanpostuak defendatzeko eskubidea aldarrikatu zuten.

Langileek sarrera nagusia oztopatzen zuten. Poliziek alboko hesia eta atea apurtu zituzten eta lantegira sartu ziren. Langileak ertzainekin hitz egiten saiatu

ziren, desjabetzea aurrera ez eramateko, baina alferrik izan zen. Kazetariak kanpoan gertatu zena ikusi ahal izan genuen, baina ez ziguten barrura sartzen utzi. Maria Victoria Ugarteburu Bildu alderdiko legebiltzarkideak ere sartu nahi izan zuen barrura, desjabetzea baldintza egokietan egiten zela bermatzeko, baina berari ere ez zioten sartzen utzi. Langileen protesta erabat baketsua izan arren, liskar txikiak egon ziren, batez ere langileak enpresatik ateratzen ari zirenean. Momentu horietan lagunek, kideek eta senideek txaloka hartu zituzten kanpora ateratzen ziren langileak. Azkenean, poliziak banan-banan atera zituen barruan zeuden 60 langileak. Azkena 13:30ean eraman zuten kanpora.



ERREKA
LAT ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfno.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA JETEX

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak



Aro berriak

Txorierriko haranaren populazioa hazten doan bitartean, baserriek galtzen dituzte beren bizilagunak. Urbanizazio berriak sortzen dira gure auzoetan eta nekazari-bizitzaren alde egiten duten lagun-kopurua gero eta txikiagoa da. Aro berriak dira haranerako.

Argazkia: Arantza Sanz



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com
J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak



94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



Bai Euskarari
urrats biziak



zuztagiriaren ikurak  www.zuztagiriaren-ikurak.org

“Profesionala izatea dut amets”

t/a: Gaizka Eguzkitza

ADRIAN LOPEZ | pilotaria

Zorionak! Zelan joan da txapelketa? Irabaztea espero zenuen?

Edozein txapelketa hasten dudanean, irabaztea dut helburu, eta lau t´erdikoa ez da salbuespena izan. Hasierako fasean, eskualde mailakoan, lehenengoa gelditu nintzen eta gero beste ligaxka eta finalerdiak gainditu nituen. Finalean nire ohiko kideari, Gaizka Izurieta, irabazi nion.

Derion, Txorierrin bertan, irabazteak badu balio erantsirik?

Bai. Oso polita izan zen, harmailetan hainbat lagunek egin zutelako nire alde. Horrek indarra eta konfiantza eman zizkidan. Era berean, txapelketa lehenengo aldiz antolatu da eta neu izan naiz lehenengo irabazlea, eta hori ere ederra da.

Urte biribila daramazu. Izan ere, GRAVN txapelketa sub-22 kategorian ere irabazi duzu...

Bai, ospe handiko txapelketa da eta oso pozik gaude. Bizkaiko hautatzaileak Kerman Galarza eta biok aukeratu ginen, eta Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Errioxaren kontra aritu ginen ligaxkan. Lau partidak irabazi genituen eta zuzenean lortu genuen finalerako sailkapena. Finalean, Jaka eta Tolosa bikote gipuzkoa-

Adrián López pilotari gazteak ibilbide zoragarria daroa aurten: bakarka, Bizkaiko Lau t´erdiko Txapelketa irabazi du sub-22 kategorian; eta binaka, GRAVN txapelketa, Kerman Galarzarekin batera. Larrabetzuarra profesionaltasuneko bidean dago, bere helburu nagusia.

“Edozein txapelketa hasten dudanean, irabaztea dut helburu”

“Bikote batekin jokatzeko ondo dago, partidako momentu txarretan laguntza eman ahal dizulako”

rra hartu genuen mendean. Oso bikote ona da: Jakak profesional mailan egin berri du debuta. Beldurgarriak izan arren, guk birritan irabazi diegu, eta hori oso esanguratsua da guretzat.

Zein txapelketak du ospe handien: Bizkaiko Lau t´erdikoa ala GRAVN?

GRAVN txapelketak aspalditik antolatzen da eta erabat finkatuta dago egutegian. Beharbada horregatik aukeratuko nuke GRAVN. Baina Bizkaiko Lau t´erdiko Txapelketa irabaztea ere garrantzitsua da. Gainera, telebistan eman zuten eta edozeinek izan zuen hura ikusteko aukera.

Bakarka eta bikoteka irabazi duzu. Zein nahiago duzu?

Lau t´erdikoa eta binakakoa dira gehien entrenatzen ditugunak. Nik esango nuke gutxien gustatzen zaidana buruz



burukoa dela, batez ere ohiturarik ez dudalako. Bikote batekin jokatzeko ondo dago, partidako momentu txarretan laguntza eman ahal dizulako. Bakarrik jokatzen duzunean, zeu baino ez zaude, eta zeuk gainditu behar dituzu momentu txarrak.

Profesionalek jokatzen duten frontoi berberetan jokatzen duzu. Hau luxua!

Bai, oso areto aproposak dira pilotan jokatzeko, noski, eta txikitatik telebistan ikusi ditut. Bertan jokatzen duzunean, emozio berezia sentitzen duzu. Niri gehien gustatzen zaidana Donostiako Atano III.a da. Aurten, bertan irabazi genion Gipuzkoako bikoteari, eta polita iruditu zitzaidan. Ea laster han berriro jokatzeko aukera dudan!

Gaur egun 21 urte daukazu eta dagoeneko txapelketak dituzu irabazita. Profesionala izateko aukerarik ikusten duzu?

Edozein gauza egiten dudanean, saiatzen naiz ahalik eta ondoen egiten eta ahalik eta urrunen ailegatzeko. Profesionala izatea? Zergatik ez... Gustatuko litzaidake, txikitatik dudan ametsa da, baina ez dakit lortuko dudanez edo ez. Oso maila handia dago eta gaur egun nire adineko beste pilotari batzuk dabilta debutatzen profesional mailan: Andoni Aretxabaleta, Danel Elezkano... Haietako batzuk nirekin aritu dira. Helburua lortzeko, beharrezko-



ak dira gauza batzuk: zortea, lan gogorra... Ni serio-serio nabil entrenatzen eta nire jokoa hobetzen saiatzen naiz. Gogorra da, niretzat ez ezik familiarentzat ere, eurek nire alboan daudelako eta leku batetik bestera dabiltzalako nire atzetik.

Nolako pilotaria zara? Zeintzuk dira zure alde onak eta txarrak?

Aurrelaria naiz eta esaten didate ondo kokatzen naizela frontoian. Akatsei dago-kienez, batzuetan kontzentrazioa galtzen dut partidetan, eta horregatik galtzen dut batzuetan partida. Eta beharbada horregatik gustatzen zait Juan Martínez de Irujo, berak ere galtzen duelako kontzentrazioa partida batzuetan.

Dena hasi zen Larrabetzun

Adrián Algortakoa da, baina zortzi urte zituela Larrabetzura etorri zen bizitzera. Horrek bizitza aldatu zion. "Txorierrira etorri arte, ez nuen inoiz pilotan jokatu, baina Larrabetzun, lagunei esker, frontoian jokatzen hasi nintzen. Herriko pilota eskolan sartu nintzen eta apurka-apurka hobetu nuen neure jokoa. Gaur egun, Bizkaiko Federazioaren eskolan nabil, Miribilla, Bilbon. Asteazken egunetan entrenatzen dugu Karmelo Ariznabarreta profesional ohiarekin. Eta asteburuetan partidak jokatzen ditut Bizkai osoan zehar. Ea udan deitzen didaten herriko jaialdietan jokatzeko".

Adrián Administrazio modulua ikasten dabil Larrondon. Gaur egun, garrantzi handiagoa ematen dio pilotari ikasketei baino, lehenengoa gehiago gustatzen zaiolako. "Jakín badakit ikasketak garrantzitsuak direna, baina nahiago dut pilota. Azkenean pilotatik bizitzeko aukerarik ez badut, ikasteari ekingo diot". Pilotari gazteak 21 urte ditu eta laster ezin izango du sub-22 kategorian jokatu, nagusiegia izango delako. Senior mailan, gauzak konplikatuagoak izango dira. "Ni baino nagusiagoak diren pilotarien aurka borrokatu behar izango dut. Ea aurten irabazitako txapelketek ateak irekitzen dizkidaten".

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ASADOR
ARAMENDI



EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Gola, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Enplegu zerbitzu hobea



Gaur egungo egoera ekonomikoa oso pozgarria ez den arren, Egaz Txorierriitik ahaleginak egiten jarraitzen dugu, eskualdean enplegua zein herritarrei eskaintzen zaizkien laguntza-zerbitzuak hobetzeko. Hala, aipatzekoak dira 2012. urtetik hona Agentziaren eginkizuna zehazten duten hiru jardunbide:

ARRETA-ZERBITZUAK LANGABEZIAN DAUDEN EDO LANGABEZIAN EGOTEKO ARRISKUAN DAUDEN LAGUNEI HURBILTzea

Apiriletik, Egaz Txorierriko bulegoetan Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DBE) lotutako orientatze eta bideratze-zerbitzua eskaintzen dugu, gure eskualdean enplegu-zerbitzu guztiak integraz. Hala, zerbitzuok bailaran bertan ematea lortu da, lehen txorierritarrek San Inazio eta Erandion dauden Lanbidearen bulegoetara hurbildu behar baitzuten. Zerbitzua asteazkenetan ematen da.

ENPLEGUA

Gure agentzia azken 10 urteotan bereizi duen joera positiboa mantentzen da. Gainera, aipatu beharra dago zerbitzuan berrikuntzak sartu direla. Berrikuntzak eskaintzen bideratzean eta kudeaketan ez ezik haien hedapenean ere eman dira. Era berean, Egaz Txorierri baimendutako enplegu-agentzia izendatu dute eta, horri esker, Enplegu Euskal Zerbitzuaren bitartez ematen dena baino lan-bitartekotza zerbitzu zabalago bat eskain dezakegu. Selektpro Txorierri markaren bidez, enpresa bakoitzeko giza baliabideen departamentuarekin egiten dugu lan, eskatzen den profilean sakonduz.

–Selektpro Txorierriren webguneak 24 orduetan eskaintzen du zerbitzua, 365 egunetan. Erabiltzaileak bertan sar dezake bere curriculum, hori eguneratu, eta lan-eskaintzetan izena eman. Gure ustez, garrantzitsua da pertsona bakoitzak bere enplegagarritasuna aztertu ahal izatea, eta ondoen egokitzen den eskaintzak aukeratzeko autonomia eduki.

–Bestalde, eta gaur egungo egoera kontuan hartuta, interesgarritzat jotzen dugu enpresa bakoitzak bere enplegu-proiektua kontatzea. Eskaintzen duten lanpostu bakoitzaren ezaugarriak eta lan-baldintzak azal ditzatela, pertsonen lan-aukera bakoitzaren “errealitatea” hurbilduz.

–Lan-eskaintzei dagokienez, gaur egun arte 400 eskaintza inguru bideratu dira. Nahiz eta hobe daitekeen zifra den, aurreko urteetako lan-aukerei eusten die. Horren haritik, aipatu behar da enplegua lortu duten lagun-kopurua handitu egin dela.

ENPLEGURAKO ESKUALDE-PLANA

Hori 2012. urtearen amaieran egin zen eta bertan Txorierriko hainbat eragileek, enpresa-erakundeek eta 100 enpresa baino gehiagok hartu zuten parte. Plana datozen lau urteetarako ezarri da, eta gaur egun arte emandako urratsak hauek dira:

–**Ekintzailetza eta autoenplegu proiektuak.** Enpresa berriak sortzeko aholkularitza eta babesa ematea. Bederatzi laguni lana ematen dieten sei enpresa sortu dira.

–**Langileak kontratatzen laguntzeko proiektuak.** Txorierriko enpresei diru-laguntzak eman zaizkie, langileak kontrata zitzaienten. Orotara sei lagun kontratatu dira.

–**Heziketa proiektuak.** Bost ikastaro eman dira, lanean txerztatzen bideratuta egon direnak.



Apiriletik hona, Egaz Txorierri arreta zerbitzua eskaintzen die Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DBE) eta Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari (EPO) lotutako izapideak egin nahi dituzten herritarrei. Zerbitzua asteazkenetan ematen da, 9:00etatik 14:00etara, eta aurretiko hitzordua eskatu behar da.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazio ekonomiko bat da, oinarritzko beharrezanean aurre egiteko nahikoa baliabide ekonomikorik ez duten lagunen eta familien beharrezan betetzera zuzenduta dagoena.

Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria aurrekoaren osagarria da eta erantzuna ematen die etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren haritik jabeek dituzten beharrezanean (alokairuak, berrakurak...).

Loiun 24 bizikidetzako unitatek jasotzen dituzte zerbitzuak; 73 bizikidetzako unitatek, Sondikan; 92k, Derion; 84k, Zamudion; 26k, Lezaman; eta 26k, Larrabetzun.

Bestalde, gizarte-larrialdietarako laguntzak gizarte-bazterketa ekiditeko beharrezkoak diren ohiko edo ezohiko gastuei aurre egiteko baliabiderik ez duten

Gizarte-zerbitzuak

*Eusko Jaurlaritzak
109.500 euroko
laguntza eman
du Txorierriko sei
udalerrien artean
banatzeko*

pertsonen daude zuzenduta. Prestazioak bere gain hartzen dituen gastuak hauek dira: etxebizitza alokatzea, kredituen interesak eta beren amortizazioa, etxebizitza mantentzea (argindarra, ura...), linea zuri-ko altzariak eta etxetresna elektrikoak, etxebizitza egokitzea, konpontzea edo bertan oinarritzko instalazioak egitea, oinarritzko beharrezan (arropa, elikadura, hezkuntza, heziketa, publikoa ez den osasun-arreta...), eta aurrekoen batek sortutako aurretiko zorrak.

Laguntzak bakoitza erroldatuta dagoen udalerriko gizarte-zerbitzuetan eskatu behar dira eta, horretarako, aurretiko hitzordua eskatu behar da gizarte-langilearekin. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako Sailak 109.479,50 euro eman du aur-

ten Txorierri Mankomunitatea osatzen duten sei udalerrietarako. Laguntza horrela banatu da: Loiu, 7.008,46 euro; Sondika, 30.599,47 euro; Derio, 31.346,40 euro; Zamudio, 22.180,48 euro; Lezama, 4.226,48 euro; eta Larrabetzu, 11.777,38 euro. Aurreikuspenen arabera, aurrekontua ekainean bertan amaitu da.

Higiene eta janari-sortak

Bestalde, eta Gurutze Gorriarekin batera, programa bat jarri da martxan, krisiaren eraginez egoera txarrean dauden familiei laguntzeko. Boluntarioek mota bitarteko sortak banatu dituzte: alde batetik, higiene pertsonalerako eta etxerako produktuak zituzten sortak (xanpua, xaboia, konpresak, lixiba...); eta bestetik, umeen higienarako eta elikadurarako produktuak zituztenak (umeentzako esnea, zerealak, potekoak, galletak, haur-oihalak, xaboia, kolonia...). Txorierriko Mankomunitatean familiaren higienarako produktuek osatutako 52 kutxa banatu dira, etxea garbitzeko produktuak zituzten 52 kutxa, zero hilaletetik sei hilaletara bitarteko umeentzako janaria zuten hiru kutxa, zero hilaletetik sei hilaletara bitarteko umeentzako higiene produktuak zituzten hiru kutxa, eta sei hilaletetik 18 hilaletara bitarteko umeentzako janaria zuten 17 kutxa.

Txorierriko Mankomunitateko gizarte-zerbitzuek oinarritzko gastuei aurre egiteko arazoak dituzten familiak aukeratu dituzte, eta familia-kargak, karga ekonomikoak eta ezohiko egoerak bezalako astungarriak hartuko dituzte kon-
tuan. Baita hurrengo baldintzak ere:

–Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko zain egotea.

–Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenak eta familia-karga eta karga ekonomiko handiak dituztenak (alokairuak, maileguak...).

–Banatuta dauden emakumeak, mantenu-pentsioa ezartzen duten ebazpen judizialen zain daudenak.

–Langabeziako sorospena jasotzen dutenak.

Lehentasuna diru-sarrerarik ez duten familiei emango zaie.



Lezamako eskolak 25 urte bete ditu

Familiarteko urteurrena

Esther Irazabalgaz eta Gaizka Peñafielegaz batu garanean Lezamako eskolan, oraindik ikusgai ziran bertan zapatuko ekitaldiko aztarnak. Eskolaren 25. urteurrenaren haritik, jai itzela antolatu eben, 500 lagun inguru batu ziran bertan: gaur egungo ikasleak eta ikasle ohiak, irakasleak eta irakasle ohiak, gurasoak, herritarrak, alkarteak, ordezkariak... Baina, batez be egun osoan zehar bizitako momentuak ikusgai ziran lagun biren arpegian. Ezin eben irribarrea saihestu, momentu hareetako bat gogoratzen eben baktotxean.

t: Itxaso Marina / a: Gaizka Peñafiel

Mobimendua goiz-goizean hasi zan Lezamako eskolaren inguruetan. Azken ikutuak emon behar ziran, argazkiak ipini, eta antolatzaileak leku batetik bestera ibiltzen ziran, konbidatuak ailegau orduko dana prest egoteko. Egun luzea eben aurretik, sorpresez eta ekintzez betetako, eta nerbioak be dantzari ebiltzan.

Jentea 11:00ak inguruan hasi zan jai-gunera hurreratzen. Dantzariak ekitaldia eskaini eutseen bertaratutako guztiei, eta gero eta indartsuago hasi ziran trikitien soinuak entzuten. Seigarren mailako ikasleek eskolan emongo daben azken ikasurtea danez, ekitalditxu berezia antolatu zan eurei zuzenduta. Eskolaren ikurra hontz bat da eta ikasle baktotxari bere ize-na eban hontz pertsonalizatu bat emon eutsien oroigarritzat. Era berean, argazki-album bana jaso eben, bi urtetik hona eskolan egindako ibilpidearen argazkiak zituana. Ikasleen tutoreak be, Luismak, sorpresa bat jaso eban. Gaztetxoek berak esan ohi dituan esaldiak idatzi eta kutxa dotore baten barruan sartu ebezan, tutoreari oparitzat emoteko.

Puzgarriak be ipini ziran, eta Ekidazu abesbatzak abesti batzuk kantau zituan. Gaizka Peñafielek egindako 50+25 dokumentalaren emonaldia izan zan. Dokumentalean herriko eskolak Gerra Zibiletik orain arte euki dauan bilakaerea jaso da. Horrezaz gainera, argazkiak be ipini ziran proiektagailu baten laguntzeagaz. Ostean, argazkiakaz eskolako inguruak apaindu ziran. Asko argazkiei argazkia botaten ibili ziran. Azaldu deuskuenaren arabera, eskolan egindako 500 bat argazki batzea

lortu dabe. Batzuk oso zaharrak izan dira eta umezaroko hamaika oroitzapen ekarri dabez lagun bat baino gehiagoren burura.

Esker ona

Umeak bazkaltzen ebiltzan bitartean, dultzaineroek girotutako kopaua eskaini zan helduentzat. Bazkalostean puzgarrietara joan ziren umeak, eta orduan helduentzako bazkariaren txanda heldu zan. "Lezaman, jente gehien batu dan herri

bazkaria izan da: 200 ume eta 300 heldu. Kolore ezbardinetako lagunak, herriko alkarteak, adin guztietako herritarrak, irakasleak eta irakasle ohiak, ikasleak eta ikasle ohiak... batzea lortu dituna. Baita Lezamatik kanpo urteak daroezan lagunak be. Oso giro polita egon zan, alkar ikusi barik urteak eroiezan lagunaren arteko solasaldiak... Oso gustura ibili ginan guztiok".

Bazkalosteak momentu hunkigarriak eta esker oneko berbak ekarri zituan. Ira-



kasleek egindako beharra eskertu eutse-
en urteurreneko ekintzen antolaketa
ibili ziran guraso eta lagun guztiei. Esko-
lan 25 urte baino gehiago dabilzan irakas-
leek be jaso eben sorpresa ederra. Ezer
jakin barik, eszenatokira igon, eta guraso-
en alkartean ibilitako ordezkariak urteu-
rrenaren hontz bana emon eutsien, beren
beharra eskertzeko. Irakasleak honeek
izan ziren: Esther Irazabal, eskolako gaur
egungo zuzendaria dana, Isabel Bastegie-
ta, Kepa Hernandez, Lurdes Prudencio eta
Patxi Serrano.

Zirrarak eragindako malkoen ostean,
jaia ailegau zan Astrapala eta Boston jai
taldeen eskutik. Suak eta guzti bota ziran.
"Oso egun borobila izan zan. Halako eki-
taldiak gehiagotan egin behar dirala ko-
mentau zan, ezin dirala beste 25 urte
igaro...". Hain gustura ibili ziran, ze askok
eguna zelán edo halan luzatu gura izan
eben, eta egin, egin eben. Izan be, asko
ziran alkarregaz gogoratu beharreko bizi-
penak eta anekdotak. "Gurasoen alkar-
teak barbakoa prestau eban eta karpearen
ondoan ipini eben txosna be oso lagun-
garria izan zan, giroa sortu eta jentea han
gelditzeko. Antzerkigintzaren aldeko a-
pustu sendoa egin dogu eskolan eta urte-

*Jaialdian 500 lagun
inguru batu ziran:
ikasleak, irakasleak,
gurasoak...*

*"Eskola publikoa eta
euskalduna bultzatzen
dogu, eta ikasleei
beren onena ateratzen
saiatzen gara"*

*Hurbiltasuna da eskola
honetako arrakastaren
gakoetako bat,
bai pertsonetikiko,
bai herriarekiko*

an bitan antzezpen bat egiten dogu. Ara-
zoa da ez dogula leku egokirik antzezpe-
nak egiteko, eta txosnan batutako dirua
oholtza bat erosteko erabiliko da".

Inplikazioa

Lezamako eskolatik pasau dan guz-
tiak oso oroitzapen onak ditu garai horre-
tatik. Eta hori agirikoa izan zan jaialdian.
"Hezkuntza bera alde batera itxita, irakas-
leok dogun inplikazioagaitik dala uste
dot", azaldu dau Estherrek. "Eskola hau
oso hurbila da bai ikasleentzat, bai gura-
soentzat. Ateak beti ditu zabalik eta ahal
dogunean laguntzen deusegu. Horrezaz
gainera, eskola publiko eta euskaldun bat
bultzatzen dogu eta ahaleginak egiten
doguz ikasle bakotzak bere onena atera
daian". "Familia handi bat gara. Eskolan
harreman berezia sortu da gure artean,
eta alkar ikusi barik urteak emon arren,
oraindik mantentzen da harreman hori",
ganeratu dau Gaizkak, ikasle ohia izateaz
gainera, praktikak Lezamako eskolan egin
dituana. "Nire ustez, ikaslea maitetua sen-
tiduten da bertan. Dokumentalerako ja-
sotako testigantzetariko bat oso adieraz-
garria da. Ama batek kontau euskun bere
semea institutuan hasi zanean, egun ba-
ten halan esan eutsala: "Ama, institutuan
ez nabe maite". Eta sentimentu hori izan
da jaialdian hainbeste lagun batu ditua-
na".

Gaur egun, 161 ume dabilz eskolan.
Estherrek aitatu deuskuen moduan, gela
bakotxean ikasle gitxi izateak aukerea
emoten deusie ikasle bakotxagaz era
pertsonalizatuago baten lan egiteko. Era
berean, kontaktu handia dabe familiagaz,
eta eskolako bilakaerea ez ezik etxekoa be
kontrolaten dabe. Harreman horri esker,
emaitzak lortzen ditue. "Esan beharra
dago institutura doazan ikasle gehienek
oso emaitza akademiko onak dituela". Era
berean, eskolak lotura handia dau herria-
gaz eta irakasleak ahalegindu dira bera-
ren gaineko materiala batzen -errekak,
mendiak, auzoak...- ikasleek bere herria
ondo ezagutzeko. Hurbiltasuna da, beraz,
eskola honetako arrakastaren gakoetako
bat, bai pertsonetikiko, bai herriarekiko.

Gurasoak

Lezamako eskola udaletxean egoan
orain dala 25 urte. Han 100 ume inguruk
ikasten eben. Lekua ez zan egokia, beste-
ak beste, instalazioak zaharrak ziralako,





lekurik ez egoalako eta hezetasuna egoalako. Gainera, umeek herriko plazan emoten eben atsedendia eta errepide nagusiaren ondoan dagoanez, nahiko arriskutsua zan. Eraikin barria egitea ezinbestekoa zan. Ondo gogoratzen dabe hara sartu ziran lehenengo eguna. “Dana egoan atondu barik eta materiala bere lekuan ipini behar izan genduan... Hasieran ez genduan jantokirik, baina gurasoak hasi ziran mugiten eta azkenean lortu eben. Jagoleak herriko amak ziran”. Baina hori ez da gurasoek lortu daben hobekuntza bakarra. “Eskolaz kanpoko ekintzak egiteko aukerea be beren eskutik etorri zan, eta burruka egin eben auzoetan bizi diran umeak eskolara autobusez etorri ahal izateko. Baita ikasleak astean behin igerilekura joan daitezkan”. Eraikina berehala lotu zan txiki eta apurka-apurka handitzen joan zan, gela eta instalazio gehiago jarri ahal izateko, harik eta gaur egun ezagutzen dogun eraikina osatu zan arte.

Etorkizun hurbilari begira, eta arlo guztietan egiten dabilzan murrizketak kontuan hartuta, dabena mantentzeagaz pozik dagoz. Eta, ahal bada, gauza txikiak hobetzea gustauko litxakie. Esate baterako, eskolaren teilatua oso zaharra da eta konpondu beharko litzateke. Eraikinaren kanpoko hormek be konponketaren bat behar dabe. Era berean, urteak daroez atezain bat eskatzen, irakasleek eurek

behar hori egin behar ez izateko eta euren eginkizuna erraztu ahal izateko.

Hizkuntza

Hogeita bost urtean eraikinak bere bilakaerea euki badau, ikasleen profila be aldatu egin da. “Gizartea bera aldatu egin da, eta horrek eragina euki dau bai gurasoengan, bai ikasleengan. Umeak babes-tuago dagoz orain”. Gainera, esan deuskue gurasoek lehen baebela nahiko berneratuta hiruzpalau balio, begirunea tartean, baina gaur egun nahasmendu handia dabela horri jagokonez. Ondorioz,

umeei ez jakez balio horreek transmitiduten. “Umeei erakusten deusegun ereduak ez da egokia, beharbada. Irakasleok be koherentzia euki behar dogu esaten dogunaren eta egiten dogunaren artean”.

Lezamakoa D ereduko lehenengo herri eskola izan zan Txorierrin. 50+25 dokumentalean jaso dan moduan, hezkuntzak euki eban aldaketarik nabarmenena trantsizino ostean etorri zan. “Irakasleek oso paper garrantzitsua jokatu eben Lezamako hezkuntzan”, esan dau Gaizkak. “Egoera korapilatsua zan, gaztelania nagusi zan eredu batetik gentozalako.



Baina irakasle gazteak, hareetako asko euskaldun barriak ziranak, gogoia eta ilusioa ebezan eta ahaleginak egin ebezan euskerearen alde". Nolanahi be, hizkuntzearen erabilera be aldatu egin da ikasleen artean. "Lehen, gaztelania nagusi zen klasean; eta euskerea, eskolatik kanpo. Orain kontrako egoera dogu. Nahiz eta herriko ume eta guraso gehienak euskaldunak diran. Besteak beste, Bilbogaz doguzan hurbiltasunak eta harremanak -lehenengo sektorean ebiltzan lagun asko hara eroaten eben bendejea-, eragina euki leikie horretan".

Ereiten

Estherrek azaldutakoaren arabera, aurreko urteetan kanpainak jarri ditue martxan euskerearen erabilera klasetik kanpo be bultzatzeko. "Oso emaitza positiboak euki doguz. Gaia datorren ikasturtean barriro hartu beharko dogu serio-tasunez. Gainera, joerak akademikoki be badau bere eragina: euskeraz mintzatzen ez badira, erraztasuna galtzen dabe".

Eskola-komunidadea LOMCEn onarpenari dago begira. "Aldaketa asko ekarriko ditu: emon behar dan programan bertan, irakasteko moduan, euskeran... Eskola pribadua indartu gura daben eretxia dogu, eta eskola publikoa ghetto bihurtu".

Eskolaren urteurrena dala-eta, Lezama ereiten alkartea sortu dabe irakasleek, gaur egungo ikasleen gurasoek eta ikasle ohien gurasoek, ikasle ohiek eta udal ordezkariak. Aurtengoa mobimentu handiko ikasturtea izan da taldekideentzat,

*Gurasoen beharrari
esker lortu ziran
jantokia eta
auzoetako umeentzako
autobusa ipintea*

*"Lehen, gaztelania
nagusi zen klasean;
eta euskerea, eskolatik
kanpo. Orain kontrako
egoera dogu"*


kurtso amaierako jai handi honetaz gain, aurreko hilabeteetan be hainbat ekintza prestatu dabezelako: urteurrenaren aurkezpena, ikasleek egindako antzezlan baten emonaldia, musika ekitaldiak eta kirol eguna. Materiala be batzen ibili dira argazki-artxibategi bat osatzeko eta dokumentala egiteko. Dokumentalaren ale bat eskuratu gura dauanak eskolara deitu daike.

Ikasturtea amaitu da, eta, udako oporraldiaren ostean, barriro ekin beharko jako beharrari. Eragingarri barriagaz kasu honetan, gaur egungo eskola irailaren 11n jarri zalako martxan, eta, jai nagusia ekainean egin daben arren, egun horretarako be zerbait berezia antolatze-ko asmoa dabelako.



"Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik."







SUITE DELUX
MARKA ESCLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com

Nobedadeak, nagusi jai-egitarauan

Pregoa ekainaren 28an irakurriko da eta halan, ohikoa denez, hasierea emongo jake Loiuko San Pedro eta Santa Luzia jaiei. Nolanahi be, aurreko orduetan be hainbat ekintza izango dira, motorrak berotzen hasteko. Hiru egunean zehar ume, gazte zein helduei zuzendutako ekitaldi-sorta zabala egongo da, baita barritasun pilo bat be. Aurtengo jai-egitarauak oso itxura ona dau.

a: Loiuko Udala

Josu Andoni Begoña Loiuko kultura zinegotziak azaldu deuskun moduan, nobedade horreek hiru esparrutan izango dira. "Lehenengoa musika arlokoa da. Herritarrek, eta batez be gazteek, eskatzen ditue kalidadezko musika-ikuskizunak. San Pedro eta Santa Luzia asteburuan izango dira aurtien eta jaiek hiru egun iraungo ditue. Horrek aukerea emon deusku eskaerari erantzuna emateko. Besteak beste, Tributo ABBA, Gati-bu, Xabi Aburrizaga eta Akerbeltz arituko dira jaietan".

Bigarren nobedadea ipiniko dan segurtasun eta osasun-protokoloari dago lotuta. "Badakigu Txorierriko eta Bilboko gazte asko animauko dirala kontzertuetara etortzera. Arazoak eta istripuak sihseteko, erabagi dogu autobus bat ipintea. Autobusak gaueko 9etan, 10etan eta 11tan pasauko da Txorierriko geralekue-tatik, eta goizaldeko 3etan, 4etan eta 5etan aterako da Loiutik". Horrezaz gainera, alkoholemia-probea egiteko leku bat atonduko da kontzertuen gunean, eta gura dauenak bertan jakin ahal izango

*Gauetz autobus
bat ipiniko da,
bisitariek autoa
hartu behar ez izateko*



Ekainak 27, eguena

- 19:00: Kirol erakustaldia, Herriko plaza: Li Karate Loiu.
- 19:30: Kirol erakustaldia, Herriko plaza: Club Doyan Yeol.
- 20:00: Pala Txapelketearen I. finalaurrekoa, Irtxan alkarteak antolatua.
- 21:00: Pala Txapelketearen II. Finalaurrekoa, Irtxan alkarteak antolatua.

Ekainak 28, barikua

- 11:00: Kalejirea.
- 11:30: Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.
- 12:00: Mezea. Pedro Gualaren organu kontzertua.
- 13:00: Aurrekua.
- 13:05: Iñaki Basabaren emonaldia Gure Etxea nagusien alkarteak antolatua.
- 14:30: Nagusientzako bazkaria Zabaloetxe frontoian, Gure Etxea nagusien alkarteak antolatua. Ostean, bilbaidanak Mikel Basaberen eskutik.
- 17:00: Dantza Lehiaketa, Zabaloetxe-ko frontoian.
- 19:00: Jatsierea, Ardoa Barrura fanfareagaz.
- 19:30: Pregoa, Koldo Agirre Athleticeen jokalaria ohiaren eskutik.
- 19:45: Kartel Lehiaketaren sariak banatzea.
- 20:00: Dantzen agerraldia Goialde dantza taldearen eskutik, LEKE taldeak antolatua.

nexis
WWW.NEXIS.COM
ABRETA ZERBITZUA
945 94 000
NEXIS@NEXIS.COM

Behar izanez gero
+Routerra ➔ 29€
+Ahots-egokigailua ➔ 39€

DOAKO INSTALAZIOA

6MB ➔ 10MB
9,95 €-tik

Alta: ➔ 85€

ZURE INTERNETEO
OPERADOREA TXORIERRIN
KALITATEZKO INTERNET, EDOZEIN LEKUTAN

PREZIO BEREZIAK
BILBO
KOMUNITASUNTZA

%15eko

Jai-egitaraua



–21:00: Tortilla Txapelketearen aurkezpena.

–21:30: Kontzertua: Tributo ABBA.

–23:30: Dantzaldia, Kresala taldeagaz.

–03:00: Dj Ibai.

Ekainak 29, zapatua. San Pedro

–Goizean, puzgarriak.

–10:00: IX. Paella Txapelketea, Santa Luzia bidean.

–10:00: II. Motorren kontzentrazinoa: izena emotea, Herriko plazan.

–11:00: Haurren Pintura Lehiaketea, kirol pistan.

–11:30: Motorrak herritik urtetea eta ibilpidea.

–12:00: Haurren herri jolasak: III. Ugelaxotoka Txapelketea eta Moltos motorren IV. Txapelketea.

–12:00: Mezea.

–13:30: Motorrak herrira itzultzea.

–14:00: Paellak aurkeztea.

–15:00: Motorzaleen bazkaria.

–16:30: Apar jaia.

–17:30: Paella Txapelketearen sariak emotea.

–18:00: Emilio Zamora motor-gidariaren akrobaziak, Santa Luzia bidean.

–19:00: Ibilpidea herritik.

–19:30: II. Moto jokoak, Herriko plazan.

–21:00: Berbena, Akerbeltz taldeagaz.

–00:30: Kontzertua: Gatibu.

–02:00: Dj Oihan Vega.

Ekainak 30, domeka. Santa Luzia

–10:00: II. Motorren kontzentrazinoa: izena emotea, Herriko plazan.

–10:00: Erakusketea, Zabaloetxe frontoian.

–11:00: Kalejirea.

–11:30: Motorrak herritik urtetea eta ibilbidea.

–12:00: Mezea.

–13:00: Motorrak herrira itzultzea.

–13:30: III. Pintxo Lehiaketearen aurkezpena eta sariak banatzea.

–14:30: Motorzaleentzako agur-ekitaldia, hotelean.

–15:00: Herri bazkaria (bakotxak berea eroan beharko).

–17:00: Padel Txapelketearen finala (neskak), frontoian.

–17:30: Padel Txapelketearen finala (mutilak), frontoian.

–18:00: Pala Txapelketearen 3. eta 4. postuak, Irtzan alkarteak antolatua.

–18:30: Oliver magoa.

–19:00: Pala Txapelketearen finala, Irtzan alkarteak antolatua.

–19:30: Bost urtetik 14 urtera bitarteko gazteei argazkia ateratea Udaltxeko eskilaretan, Loiu Laztana alkarteak antolatua.

–19:30: Sardina jana.

–20:30: Xabi Aburruzaga trikitilaria.

–22:30: Pantxiko erretzea.

Erdu eta gozatu

LOIUKO



UDALA

Jaietan
euskaraz blai!





dau autoa hartzeko moduan dagoan ala ez.

Hirugarren nobedadea motorren kontzentrazioa da, aurten jai-egitarauaren barruan egingo dana. "Herrigunea ia hutsik, giro barik, lotzen da zapatu goizean eta arratsaldean, egun horretan landetan egiten dalako Paella Txapelketea. Horregaitik erabagi dogu Txori Bikers ekitaldia jaietara eroatea, herrigunea girotzeko eta gure ostalaritzarako eta komertziorako be onuragarria izan daiten".

Gazteei begira

San Pedro eta Santa Luzia jaiak Loiuko Kultura Saitetik antolatu dira, gaur egun herrian ez dagoalako jai-batzorde-tik. Halan egiteko, urtean zehar nagusien-gandik, helduengandik, gurasoengandik eta gazteengandik jaso dituen iradokizunak hartu ditue kontuan. Baina batez be gazteen inguruan batu ditue indarrak. Ekitaldien % 68 gazteei zuzenduta dagoz. "Inguruko beste herri batzuetan be badi-ra jaiak, eta guk gure gazteak herrian lotzea gura dogu, eta lagunak Loiuko jaietara etortzera konbidau daiezala.



Herritar guztiei zuzendutako 40 ekintza baino gehiago antolatu dira

Gure gazteei entzun deutsegu, haren eskaerei erantzuna emoteko egin dogu behar eta uste dogu asmau egin dogula".

Udaletik espero dabe aurtengo jaiak oso parte-hartzaileak izatea, adin guztietako loiuztarrek zer ikusi eta zer egin eukiko dabelako: jubiladuentzako ekintzak, kontzertuak, gastronomia lehiaketak, umeentzako jolasak, kirola, motorren erakustaldiak... "Poztasuna eta giro ona nagusi izatea gura dogu, herritarrek egun batzuetan zehar arazoez ahaztea, eta haren herriko jaietz harro egon daitezcan". Horretarako, 40 ekintza baino gehiago egongo dira. "Jai alaiak, dibertigarriak eta batez be biziak izango dira, eta loiuztar-rrak ez ezik txorierritar guztiak be bada-goz konbidatuta".



Aldekona jaietan

Uztailaren azken egunetan eta abuztuaren 3an mugimendu handia egongo da Derioko Aldekona auzoan. Izan ere, bertan Santiago, Santana, San Inazio eta San Esteban ospatuko dituzte. Jaietarako antolatu dituzten ekitaldien artean, hauek aipa ditzakegu: dantzen agerraldia, kalejirak, umeentzako puzgarriak, ohiko mozzorro txapelketa, berbenak, idi-probak... Gastronomia arloko txapelketak ere egongo dira. Paella Txapelketari dagokionez, irabazleari txakolina eta 70 euro emango zaio saritzat; txakolina eta 50 euro, bigarren lotzen denari; eta txakolina eta 30 euro, hirugarrena lotzen denari. Sukalki Txapelketa irabazten duenak txakolina eta 100 euro jasoko ditu; bigarrenak, txakolina eta 70 euro; eta hirugarrenak, txakolina eta 30 euro. Mus eta Briska Txapelketak ere izango dira. Irabazleek artxo bi jasoko dituzte saritzat; eta bigarrenek untxi bi.



Jai-egitaraua

Uztailak 25, eguena. Santiago

- 11:00: Kalejira.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Dantzen agerraldia, Laino-mendi taldearen eskutik.
- 14:30: Paella Txapelketaren aurkezpena.
- 16:30: Mus "arin-arina".

- 17:30: Paella Txapelketaren sariak banatzea.
- 18:30: Harri-zulatzailleen erakustaldia, Txorierri herri kirol taldearen eskutik.
- 19:30: Tortillen aurkezpena.
- 20:30: Tortilla Txapelketaren sariak banatzea.
- 21:00: Berbena, Raspu taldearekin.

Uztailak 26, barikua. Santana

- 11:00: Kalejira.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Sukalkia dastatzea, txosnan.

Uztailak 30, martitzena

- 17:00-20:00: Puzgarriak eta "fashion tailerra".
- 20:30: Mozzorro Txapelketan izena ematea.
- 21:00: Mozzorro Txapelketa.
- 22:30: Mozzorro Txapelketaren sariak banatzea.
- 23:00: Berbena, Zirkin taldearekin.

Uztailak 31, asteazkena. San Inazio

- 11:00: Kalejira.
- 12:30: Meza eta nagusientzako kopaua.
- 13:15: Nazioarteko folklorea: Do Lusco o Fusco Galiziako taldea.
- 19:00: Idi probak.

Abuztuak 3, zapatua. San Esteban

- 12:00: Meza.
- 13:00: Kopaua.
- 14:30: Sukalki Txapelketa.
- 16:30: Mus "arin-arina" eta briska.
- 20:00: Sariak banatzea.
- 20:30: Txerriak dastatzea.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Peru Iparragirre

Gotzon Barandiaranek, antolatzaileetako batek, oso balantze ona egin dau. "Ekitaldi guztietan jente dezente egon da eta horrek baieztan deusku Euskal Herri osoan literaturazaleen sarea egon bada-goala: irakurleak, kulturazaleak... Gauza mamintsuak eta interesgarriak euki doguz eta giro ederra egon da Literaturian". Besteak beste, idazle eta irakurleen arteko topaketak izan dira, kontzertuak, antzezlanak eta umeentzako ekitaldiak. Era berean, argitaletxeek kaleratutako azken nobedadeak eroan dira azokara. Eguraldi txarrak be bat egin eban azokeagaz. "Oso eguraldi kaskarra egin dau maiatzean, eta jentea eguzkiaren gose zan. Eguraldi ona egin baleu, ez zan inor etorriko".

Aurtengo nobedaderik handiena antxinako liburu-dendak izan dira eta, antolatzaileen esanetan, esperientzia polita izan da. "Aurreko urteetan karpa bat jarri genduan, baina aurtan liburu-denda zaharrak antzestu doguz Andra Mari kalean; hau da, Larrabetzuko gizarte-hirigunean. Herrikoak bertan eta plaza inguruan biltzen gara asteburuetan, eta Literaturian be bertan batu gara. Gustura ibili gara guztiok: bisitariak, argitaletxeok, idazleak... Asmau egin dogu, bai horixe!".

Babesik ez

"Nahiz eta aurtan erakunde publikoetatik diru-laguntzarik ez jaso, Literaturiak argi eta garbi itxi dau agirian hori barik be aurrera egin leitekeala. Babesa euki bagendu, askoz gauza txukunagoak egiteko

Literaturaz blai

Literaturiaren aurtengo leloa "Kale gorrian" izan da, baina eguraldi txarra dala-eta, literaturazaleek aterpean emon dabe asteburu osoa. Antolatzaileak oso pozik azaldu dira egindako beharragaz. Euskal Herriko lagun pilo bat etorri dira herrira, baina Txorierriko babesa bota dabe faltan. Eguraldi kaskarrak ez eban Literatura zapuztu eta Larrabetzuko euriaz eta literaturaz blai emon eban asteburu.





*"Pozik gagoz,
autogestinoaren
bidez, une ederrak
eta intensoak
bizitzeko aukerea
euki dogulako"*

gauza izango ginan, eta behintzat sortzaileei merezi dabena eskini ahal izango geuntsen. Dana dala, pozik gagoz, autogestinoaren bidez, une ederrak eta intentsuak bizitzeko aukerea euki dogulako".

Gainera, Gotzonek Txorierriko euskalgintzaren babesa be bota dau faltan. "Euskal Herritik jente asko etorri da, baina, tamalez, Txorierri inor ez zan Larrabetzura hurbildu. Badakit Lezaman Txakolinaren Eguna antolatu ebela egun berean, eta, gure ustez, horrek adierazoten dau hemen eskualde ikuspuntutik ez dagoala. Literatura ez da Larrabetzun, Txorierri edo Bizkai mailan egiten dan ekitaldia, Euskal Herri mailakoa baizen".

"Horrek guztiak etorkizunari buruzko gogoeta ekarri behar dau. Bost urte egin doguz eta jauzi kualitatiboa egin behar dogu. Ikusi behar dogu zelan ailegau jente gehiagorengana, zelan zabaldu irakurtzeko zaletasuna, zelan egin aurre gas-tuei... Eta hausnarketa hori geuk ez eze, Txorierriko euskalgintzak eta bailarako erakunde publikoek be egin behar dabe".

Zornotzako Barnetegia, euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko duzun etxea



Zornotzako Barnetegia, dituzun premiei erantzuteko aukera ematen dizun zentroa. Horrela, etxe honetan zeu, ikaslea, zara protagonista, dituzun helburuak lortzeko.

HEMEN ZEUA ZARA PROTAGONISTA

"Barnetegian, bertako giroari eta hezkuntza sistemari esker, minutu guztiak aprobetxatu nituen. Gomendatzen dizut!"
Irene (Getxo)

Ikasleak gurera etortzen dira HABEk homologatutako zentroa garelako eta **24 orduko inguru euskalduna** eskaintzen dugulako. Horrela, euskara egunerokotasunean txertatzen da eta irakaskuntza erabilerari lotua dago.




Zornotzako Barnetegia



www.zornotzakobarnetegia.com

T. 94 630 83 04 Larrea auzoa, z/g - 48340 Amorebieta-Etxano

“Defentsa pertsonala azken aukera izan behar da beti”

DAVID CABREIRA | irakaslea

Krav Magá defentsa pertsonalerako sistema bat da, jatorriz Israelgo armadarentzat asmatua, baina zibilei ere irakasten zaiena. Gero eta arrakasta handiagoa du gure artean eta, hura praktikatzan dutenen arabera, erabat baliagarria da edozein egoera bortitzetatik onik irteteko. Sistema hau ikasten duen talde bat badago Sondikan, eta David Cabreira da irakaslea.

t: Itxaso Marina

Zertan datza Krav Magá?

Defentsa pertsonalerako sistema hau erraza, azkarra eta eraginkorra da. Hura ikasteko, ez da beharrezkoa aurretik batera ezagutzarik izatea, eta ikasleak oso denbora laburrean ikasten du bere burua defendatzen. Lehen-lehenik, geure burua kontrolatzen ikasten dugu, modu ego-kian erreakzionatzen. Izan ere, erasotzen badigute eta izuaren ondorioz geldirik geratzen bagara, alferrik da borroka-arte-en teknika guztiak jakitea. Ondoren, defentsa natural bat erabiltzen ikasten dugu.

Adibidez?

Soinean daramagun edozein gauza erabil dezakegu erasoalditik ihes egiteko: poltsa bat, giltzak, sakelako telefonoa... Dena dela, argi eduki behar dugu helburua ez dela gorputzez gorputz borrokatzea, nork irabazten duen, baizik eta bizia salbatzea. Defentsa pertsonala azken aukera izan behar da beti. Lehenik, saiatu behar dugu erasotzailearekin hitz egiten, gauden lekutik alde egiten... Krav Magá azken baliabidea da. Erasotzailea menderatzea edo berarengandik ihes egitea lortzen dugunean, laguntza eskatu behar da. “Sua!”, oihukatu.

Nortzuek praktika dezakete?

Sei urtetik gorako edozein pertsonak. Nire ikasleen artean, adibidez, badago 71 urteko gizon bat. Eskola emateko orduan, ikasle bakoitzaren ezaugarriak hartzen dira kontuan, guztion indarra ez delako berdina, edo ez daukagulako gorpuzkera berdina. Minusbaliotasuna dutenei eta

“Lehen-lehenik, geure burua kontrolatzen ikasten dugu; eta gero, defentsa natural bat erabiltzen”



Etengabeko ikaskuntza

David Galiziakoa da, baina Sondikan bizi da. Harreman estua du borroka-arteekin, bost urte zituenean hasi zelako haiek praktikatzan: taekwondo, brazilian, kick boxing... Krav Magá lankide baten bitartez ezagutu zuen orain dela hamar urte. “Bete egiten ninduen eta naturalagoa zen zerbaiten bila nengibilen. Probatu eta gustatu egin zitzaidan”. Asteazkera, Galizian entrenatzen

zuen eta hilabeterik bitan Cascaisera joaten zen, bere irakaslearen maisuarekin entrenatzera. “Hainbeste gustatu zitzaidan, ezen irakasle egitea erabaki bainuen. Gainera, gauza berriak ikastea gustatzen zait, neure burua aberastea”. Azaldu digunez, orain Siziliako maisu batekin dabil, gauza gehiago ikasten Krav Magári buruz. “Hau etengabeko ikaskuntza delako. Las-ter abiatuko gara bertara”. Davidek sei



emakumeei irakastea gustatzen zait, "talderik ahulenak"-edo direlako. Irakaspe-nak bakoitzaren ezaugarri, beharrian eta indarguneetara egokitzen dira.

Nolako onurak ditu?

Alde batetik, lagungarria da sasoi onean egoteko eta, bestetik, autoestimu izateko. Garrantzi handikoa da nola-ko aldartea dugun kaletik gabiltzanean. Makur, goibel, bagabiltza, biktima ezin hobea izango gara erasotzailearentzat. Baina segurtasunaz gabiltzala ikusten badu, birritan pentsatuko du guri erasotzen saiatu baino lehen. Berdin dio gizonetako edo emakumezkoak bagara.

Zaila da ikasten?

gimnasiotan irakasten du defentsa pertsonalerako sistema hau, eta 113 ikasle ditu guztira. Argi utzi nahi izan du ikastaroan defentsa pertsonala bakarrik irakasten dela eta hori ez dela nahasten ez politikarekin ez inongo gatazkarekin. Noizean behin, topaketak egiten dituzte beste gimnasio eta eskola batzuekin, elkarrekin entrenatzeko eta Krav Magá-ren inguruan egun bat emateko. Azken-ka ekainean bertan egin dute lurretan.

Informazio gehiago:
www.kmeuskadi.com.

Ez, oso erraza da. Gure burua defendatzeko oinarritzkoa hiru edo sei hilabetean ikas dezakegu. Borroka-arteekin alderatzen badugu, adibidez, guk ez dugu jarrera bitxirik hartzen, errealismoa bilatzen dugu. Hala, eskolan simulazioak egiten ditugu: itotze-ahaleginak, bortxatzeak, erasoak... Entrenamenduaren % 60 zeure burua kontrolatzea da. Eta gero, hori lortzen denean, teknikak-eta azkar barneratzen dira.

Zertan dira desberdinak Krav Magá eta gainerako defentsa pertsonal edo borroka-arteak?

Krav Magá sistema irekia da. Hau da, ni gauza banaiz erasotzailea bost kolpez menderatzeko, baina zuk hiru kolpez menderatzen baduzu, zeure teknikak balio du, eraginkorragoa da. Beste alde batetik, teknika batzuk hartzen ditu beste borroka sistemetatik. Esaterako, zuk boxeatzeko badakizu eta guardiaren batek balio badizu zeure burua babesteko, hura ere erabil dezakezu Krav Magán.

Oinarritzkoa hiru-sei hilabetean ikasten dela esan duzu lehen. Zenbat denbora behar da dena ikasteko?

Ikasleek gerriko-sistema erabil dezakete, nahi badute, baina eurentzat da bakarrik, nik badakidalako zelako maila duten eta zer hobetu behar duten. Dena dela, nik ez dut nahi Krav Magá ikasten urteak eta urteak egiten dituen ikaslerik, beren burua defendatzen ikasi nahi duten ikasleak nahi ditut. Hori da gure helburua.

Arriskutsua izan daiteke?

Komenigarria da jakitea zeini irakatsi ahal zaion eta zeini ez. Niri ez zait interesatzen liskarzale bati irakastea. Nik jende zintzoari irakatsi nahi diot, Krav Magá jakin arren inoiz erabiltzeko asmorik ez dutenei.

Talde bat osatu duzue Sondikan. Ikasturtea laster amaituko da, ikastaroa berriro antolatzeke asmorik?

Bai, ikastaroa uztailan amaitu eta irailean hasiko da berriro. Bertan parte hartu nahi dutenek Artebe kiroldegian galde dezakete. Lehenengo eskola doakoa da, bakoitzak ikus dezan ea benetan interesatzen zaion edo bere itxaropenak betetzen dituen. Hamalau lagunek osatutako taldea dugu Sondikan, eta haietako bi neskak dira. Krav Magá martitzenetan eta eguenetan ematen dugu, 19:00etik 20:00etara.

Aislamientos Derio Tabikeak
Pladurrezko sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa
Aiertze Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabes
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 03 - Fax: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 34 29 56

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata
Larraberrí, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiasalai@gmail.com

harategia - urdalategia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 - DERIO 48160 - T: 454 52 94

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku
Zaindzu BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kinesioterapia
clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika
Txorien etorbidea, 9 - Loria | Antzaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzaindus.com | www.dentalzaindus.com



Kafesnea



Gurasolagun



Perretxikoak prestatzen

“Euskara, ikasteaz gain erabili egin behar da”



**berba
lasun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
635 75 35 95
E-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

Horiek izan ziren ama hunkitu batek Mintza Egunean argi, zuzen eta bihotzez oparitutako hitzak. Eta berbak ekintza barik ez direnez ezer, indarrez betetako irrintzi batekin jarraitu zuen. Jaiaren hasiera izan zen, eta jarraian bertsolariak, dultzainak, erromeria... Denok bat eginda, gure kulturaren bizitzeko aukera izan genuen; eta, betiko garra piztuta, hizkuntza gure ametsa. Euskara ametsa izaten jarraitzen duen bitartean, ilusioz betetzen gaituen bitartean, bizirik jarraituko du. Suabe, astiro, apurka, irrintzia izan arte.

Zergatik berbalagun? Denetarik e-gongo da, baina niri galdetzen badidate, ameslaria naizelako, sentitzen dudalako, nirea delako, gurea. Bizi garen gizartean “gurea” kontzeptua galtzen ari da. Guztia denona eta dena guztiona, eta horiekin batera kultur garbiketa; beraz, zer gara, gu geu ez bagara?

Guztion artean urteetan egindako lana fruituak eskaintzen ari da. Erraza ez da izan eta ez da izango; baina, maite denean, lana saria da. Horregatik, eta amesten laguntzen nauzelako, berbalagunen parte hartu duzuen guztiei eskertu nahi dizuet, zutabea zaretelako, oinarria. Berezi, astero euskara jakin arren taldean dauden berbalagunei, hau da, inolako interes barik besteok laguntzeko prest zauden horiei, zuek barik berbalagun ezin! Eskerrik asko!



Berbalagunen afaria



Argazki txangoa



Bilboko Arte Ederren Museoa



Berbagunea



Tximintx elkartearen 10. urteurrena



Larrabetzuko erreka ibilbidea



Perretxikotan



Mintza Eguna

**HAUR-MODA**
TxIMELETA
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA
Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolin leku jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora
Behoko Kalea Bayo
DERIO

Nire Autocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Webguneak datorren urtean erregistra- ahalko dira .eus domeinuagaz



Urtebete oso bat ebaluazio fasean emon ondoren, ICANN erakundeak Euskerearen eta Euskal Kulturearen Komunitatearen .eus domeinu onartu dau. "Irtsi da urteetako beharra eta pazientzia eskatu dituan prozesuaren emaitzea. Euskerearen herriaren nazinoarteko aitorzea, .eus Interneteko lehen mailako domeinu bat baita, hau da, komunitatearen garapen lokalerako tresna global bat", esan dabe PuntuEus Fundaziotik.

Ibilpidea luzea izan da, proiektua jaio zanetik sei urte pasau diralako, eta lau

urte, ha aurkeztu zanetik. "Erronka bati heldu gura geuntsala aitatu genduan. Euskerea eta euskal kultura Interneten ikusgarri bilakatu gura genduzala, euskerearen eta euskal kulturearen Interneteko presentziari, izanari, izena jarri gura geuntsala".

Hurrengo hilebeteetan PuntuEus Fundazioak kontratu bat sinatuko dau ICANNegaz, .eus domeinuaren administrazioa, kontrola eta kudeaketea izateko. Ondoren, proba teknikoak egin beharko dira, .eus martxan jarri daitekeala ziurta-

tzeko. Azkenik, webguneak 2014ko apirilaren inguruan erregistra-ahalko dira .eus domeinuagaz. Fundazioak egutegi, urrats eta aukera guztien barri emongo dau.

Bestalde, egitasmoaren sustatzaileek azpimarratu dabe hori aurrera atera bada, Fundazioaren egindako beharragaitik ez ezik, milaka euskaldunen parte-hartze aktiboagaitik eta konpromisoagaitik be izan dala. "Eskerrak emon gura deuseguz egunero euskerazko Internet posible egi-ten dabenei, Interneten euskeraz aritzen diranei, euskerazko tresnak eta danetari-ko aplikazioak sortzen eta erabiltzen ditueni, eta proiektua babestu dabenei. Horreek barik, ez dago euskerea eta euskal kulturearen komunitaderik sarean. Horreei esker esangurea eta zentzua dau .eus domeinuak".

PuntuEus Fundazioa honeek osatzen dabe: Euskaltzaindia, Euskerearen Gizarte Erakundearen Kontseila, Euskal Konfederazioa, Euskal Idazleen Alkartea, Euskal Herriko Unibersidadea, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Ikastolen Alkartea – Partaide IEP, Euskal Irrati Telebista, Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Alkargoa, Euskadiko Informatikako Ingeniarien Alkargo Ofiziala eta PuntuEus Alkartea.

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Lenzola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 34 48

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA
Mehon
www.PATXI.COOP
Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
+ faxa: 94 452 25 67
patxiscoop@patxi.coop

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Diz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613

Globalizazinoa: **viaje de novios** Larrabetzutik Santurtzira

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

“Mikelen amama –Mikel Zaraterena– eta nire amama –dino Pedro Urtiagak– ahiztak zoazan, Larrabetzukoak, **Sústiko-ak**. Gure amamak esaten joan –darrai Pedrok– ezkondu ziranean **Viaje de novios** Santurtzira joan zirala.

Aiko hemen lehengo ezkontza bi-daien eredua. Larrabetzutik Santurtzira joateko ez zan behar agentziarik, ez hegazkinik, ez bost izarretako hotelik. Gaur egun, ostera, Seychelles uharteetara joaten dira bikote ezkonduak; uharte paradisiakoak ikusten; tropikoko oihane-tan zehar txangoak egitera; koralezko uharrietan murgiltzen. Azken baten, bi-daia exotikoak eginez erlaxatzen; harea zuri-basatietan **etxunten**; 900 espezieta-ko arrainak banan-banan erre eta jaten; pertsonako 3.600 euro ordainduta hamar egun ametssezko bizitzen.

Geozentrismoan eguzkia ebilen lurra-ri birak emoten. Gero, heliozentrismoan lurra bera eguzkiari biraka. Gaur eguneko bidaiazentrismoan, turistak hasi gara lur-globoaren inguruan bueltaka. Barria, urruna, exotikoa da eguneroko errutina-ren antidotoa eta bidaietako filosofia: “Joan eta etorri, kapela gorri”.

Ezagutu neban nik Txomin Torroto, porturik portu munduan marinela ibilia eta etxeratu zanetariko baten, taberna bazterrean zala, itaundu eutsiena:

–Mundu zabalean ibili haz hi Txomin, ezta?

–Bai, ikusi joazat Shanghai, Singapur, Hong Kong. Jebel Ali, Rotterdam, Ham-burgo, Puerto Juárez..., portu asko.

–Orduan, Txomin, hik ondo jakingo dok geografia.

–Bai, han **bere** egon nok!

Nor joan leitekeen gaur, orduko ama-men **ilusinoagaz** Viaje de noviosen Larrabetzutik Santurtzira!

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

INBISA
SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE
Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinak eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzorua deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.
INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com
Tel. 94 424 38 34

Etxeko sukaldaritza

"Bordako" tartea

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak:**

- Litro bat esne
- 100 g azukre
- 100 g gaztai arraspau
- 5 arrautza
- Bezperako ogi zati bat
- Karamelua (molderako)

Prestateko errea:

Ogia ordu erdian eukiko dogu esnetan beratzen. Moldea karameluz igurtziko dogu. Zerrendako osagaiak nahasiko doguz eta ondo irabiauiko dogu. Nahasketea moldera botako dogu eta labara sartuko dogu 175 gradutan. Bertan egin arte eukiko dogu. Labatik atera eta, hotzitzen danean, tartea moldetik aterako dogu.



Alkatxofa beteak

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 16 alkatxofa
- 250 g urdaiazpiko
- 250 g urin
- Litro bat esne
- Arrautza bi
- Kipula bat
- Oliba-orioa
- Barazki-salda

Prestateko errea:

Bexamela prestaiko dogu eta hari urdaiazpikoa gehituko deutsagu. Alkatxofak erditik moztuko doguz eta zati biren artean bexamela ipiniko dogu. Alkatxofak urinetik eta arrautzatik pasauko doguz eta oriotan prijiduko doguz. Orio horretan be alde aurretik txikitutako kipulea prijiduko dogu. Saltsea egiteko, su motelean urdaiazpiko txikituta, urin apur bat eta barazki-salda ipini eta han itxiko dogu irakin arte. Alkatxofak zar-tagin baten jarriko doguz eta gailnetik saltsea botako deutsegu.

Albaitaritza **HENAR ORTUONDO**
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonotua: 1815

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefona: 944 543 705

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txanemendi etorbidea, 9-4
415. bulegoa
48100 Derio

Telefona eta faxa
94 454 44 58
a.amondarain@euzkai.net

BIZKAIA IRRATIA Txorierrin

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

euskal herriko d-generazioa

aritz eta nagel
aikor! 2013ko ekainaren 21ean



ZORIONAK!



Zorionak Iratxe!



Zorionak Gaizkita, familiaren partez. Musu handi bat

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor! laguntzat x20ko deskontua

Argazkia eta testua:

- Hilaren 15a baino lehen agindu
- aikortxori@aikor.com helbidera



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Hitzaldiak

Lezama

- > "Zelan zahartu era egoki batean", Miren Zubieta psikologoaren eskutik. Uztailaren 11n, 17:30ean, Adintsuen etxean.

Kirola

Derio

- > Abiadurako irristaketaren proba. Uztailaren 7an, 11:00etan, Ugaldegu-ren I eta II industrialdeetan. Bizkaiko Irriestaketa Federazioak eta Basroller ITk antolatuta.



Bestelakoak

Derio

- > "Busti zaitez" esklerosi anizkoitza duten lagunen aldeko ekitaldia. Uztailaren 14an, 10:00etatik 14:00etara, kanpoko igerilekuan.
- > Tokiko Agenda 21. Uztailak 17, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatuta.



Zamudio

- > Azaleko minbizia prebenitzeko kanpaina. Uztailaren 17an, 17:00etan, Sabino Arana plazan.



POLITEKNIKA IKASTEGIA
Txorierri
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Hezikuntzarako Ikastetxea

Uztzagia Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- * Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- * Mekanizatua

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- * Ekoizpenaren Programazioa
- * Automatizazioa eta Robotika Industrial
- * Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- * Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- * Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 055 90 06

Garmendia ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Fax: 94 452 00 49

AM
FORMACIÓN Y TRADUCCIONES

www.am-formacion.com | info@am-formacion.com

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Errementen 16
48150 SONDKA
T: 94 453 64 08

INGLESAZAZALA
-AMALA GUTIAK
-AZTERKETA OFIZIALAK
-GUTERKO PRESTAKUNTZA
-ONE-TO-ONE IKASKOLA
-PRESTAKUNTZA EMPRESETA
-INGULAK KANPOKO KLASEAK
-ITZULPEN ZERBITZUA

Txorierri MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoliti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

RPS: 18470

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Oxatun-zentroa & Hortz-esteka
HORTZ-PLANTEAK - ORTUQUINTALIA ESTETIKA
DENTALAK ZEPZELDUNAK

Dr. Amara kalea, 11 - 1. er. • 48011 BILBO • Telefonu: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonu: 94 452 13 70

**"Emon
hegoak
euskereari"**

**Ekainak
29
zapatua**

**Ekainak
28
barikua**

10:45 FLASHMOBak Leizaola Lehendakari plazan hasi
Gorbeia kaleko plazara, eta handik Agirre Lehendakari plazara

11:30 HAMAIKETAKOA Agirre Lehendakari plazan

12:00 HERRI MOSAIKO ERRALDOIA Agirre Lehendakari plazan

12:30 FLASHMOB NAGUSIA Leizaola Lehendakari plazan

13:00 KALE-JIRA-BIRA-DANTZA-POTEOA
Bertoko eta bertsolariak - Hiru bat eta Gazte Alai
MOTOR JOKOAK, Leizaola Lehendakari plazan *Zamudio Racing*
Elkartearen eskutik

15:00 HERRI BAZKARIA, eskoletan. 15 € nagusientzat, 10 € umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai. Azken eguna
ekainaren 24a, astelehena

17:00 TALDEKA KANTAU, *Taberna Ibiltariagaz*, eskoletan
MEHATZETAKO JOKO ETA JOLASAK *Kulki taldeagaz*

20:00 ERROMERIA, *TRIKIZIO taldeagaz* eskoletan



Animatu eta parte hartu koadrileagaz Jantzi zaitez antzinako euskal erropakaz!

Landabarri Kluba

◆◆◆ URTE GUZTIAN IREKITA ◆◆◆



ETXEBIZITZA-GUNEA
LANDABARRI

Bilbo Handiko
habitat berria



Uda honetan **Landabarri Etxebizitza-guneko Landabarri Klubak** atek irekiko ditu berriro **kafetegia-jatetxearen** eta **paddlearen** inaugurazioarekin, bi zerbitzu hauek eta **igerilekuek** osatzen dute Klubaren eskaintza, aisialdirako leku paregabea izanik lagunekin eta familia guztiarekin erabili ahal izateko.

Landabarri Kluba
erabil ezazu urte guztian!



94 645 90 15
www.landabarri.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.